



BARREN
TOKIKOM

Zalantzaz jositako hasiera



Ludotekako eta Gaztelekuko zerbitzuak berriro martxan!

www.elgoibar.eus

Ludoteka: Irailak 7

Gabriel Kurutzelaegi, 6
20870 ELGOIBAR
943 748 883
ludoteka@elgoibar.org



Gaztelekua: Irailak 9

Gabriel Kurutzelaegi, 4
20870 ELGOIBAR
943 743 228
gaztelekua@elgoibar.org
www.instagram.com/elgoibarkogaztelekua



PINTURA ETA DEKORAZIOA
CORDON VILARCHAO
cordonvilarchao@telefonica.net
San Roke, 7 - Olasope, 18, Pab. 25-26
943 740 570 / 636 98 61 62



Jon Aranao
Guillermo Torres



Elgoibar
Albaitaritza

San Roke, 26 - 20870 ELGOIBAR (Gipuzkoa)
Tel.: 943 740 704 - 639 047 337
Asteleheneratik ostiralera: 11:00 - 13:00 / 16:30 - 19:30
Larunbatak: 11:00 - 13:00

*Inoposindegi zerbitzua daukagu.
Denb. ordut hartzeko.*



Jarri ezazu zure publizitatea
BARREN astekarian edo
www.barren.eus webgunean

943 743 704
688 634 044

barren.publi@elgoibarkoizarra.eus
Aita Agirre Kulturgunea, 3. 3. ezk. - 20870 ELGOIBAR



MEKANOSA

Errosario, 27
Tel: 943 74 02 84 Elgoibar

- ★ IDAZMAKINEN SALMENTA ETA KONPONKETA
- ★ MULTIKOPISTAK
- ★ FOTOKOPIADORAK
- ★ ERLOJU INDUSTRIALAK
- ★ MARRAZKETA MATERIALA
- ★ INFORMATIKA
- ★ FAX



ETXEBERRIA

EHORZKETA-BEILATOKIA

943 741 327 (24 orduz)
635 756 295
629 635 203

Santa Klara, 16 - Elgoibar
info@funerariaetxeberria.com
www.funerariaetxeberria.com

Kutxak, trasladoak eta koroak.
Norbanakoei eta konpainiei zuzenduriko zerbitzuak.
Erietxe zentruetan zerbitzuak.

Hilabete falta da!

Irailaren 27an amaituko da entitateek Euskaraldian izena emateko epea.

Elgoibarko entitateetan euskaraz gehiago egitea da helburua;
ariguneak sortuko ditugu horretarako.



Dagoeneko 50 entitatek baino gehiagok eman dute izena.

Nahi baduzue, zuekin egoteko ere prest gaude:

DEITU: 625 709 365

IDATZI: elgoibar@euskaraldia.eus





JUAN LUIS MUGERTZA

Idazlea

Atsotitzak

Ez dakit gogoan duzuen, baina orain dela hamabi urte gugandik pertsona maitagarria, eta euskaltzale amorratua joan zen. Izan ere, ez dakit inoiz, inon, inork bizitzako hogeita zazpi urtetan Euskal Herriko bazter guztietan euskalkiak lantzen, baserriz-baserriz euskara aberasteko berebiziko altxorra eskaintzen duten atsotitzok biltzen (13.000), Gotzon Garatek besteko ahaleginik egingo duen, nahiz eta ezin ahaztu bilduma klasikoetan egindako lanak: *Refranes y sentencias*, XVI. mendean egile ezezagun batek idatzitako 539 errefrau; Oihenart poeta zu-

berotarrak XVII.ean argitaratutako 706 atsoitiz; eta XX.ean Azkuek eta Zabalak egindako biltze lanak. Horregatik, eta eskertzeko egindakoa, gaurko zutabea erabili nahi dut jaiotzaren urteurrenaren bueltan (irailak 1),

*Nahiz egoera izan litekeen
gaur egunean iluna
nahiz ta aurrera ateratzea
izan litekeen astuna
aholkutxo bat entzun zaidazu
adi-adi zuk laguna
hizkuntza gabe esan zaidazu
nor den zure nortasuna!*

Euskara bestela ez gara

*Entzun ezazu gaurko honetan
ehiza kontu gurea
mendi geunden baso batean
ze basurde partidea!
tiro bat egin korrika hasi
denok hartu nahi atzea
Korrika gehien egin zuenak
hartu zuen basurdea.*

Darrionarentzat da ehiza

bere gustuko opari bat ("Oparia, lokarria") egiteko. Horretarako, bertso batzuk irakurri, eta gordetzen duten esaera asmatu. Jakin ezean, lasai, erantzuna bertsoaren oinean buelta emanda, duzue-eta.

*Jaiotzez gara denok berdintsu
eta denok azal finez
batzuk beltzaran, besteak txuri
denok politik gutxienez
denborarekin azal fin hori
xamurtzen zaigula zinez
denbora eta edertasuna
adarka daude ezinez.*

Edertasuna iraute gutxi ondansuna

*Beti arazo bera
jaiak direnean
orduaren kontua
joateko uanean
nahiz eta goiz nator ama
esan, azkenean
festan geratzen gara
pozik gaudenean.*

Armen, amen egin eta norberarena egin



BARREN

ARGITARATZAILEA:



ELGOIBARKO IZARRA
Euskarazko Topagunea

Aita Agirre Kulturgunea, 3, 3. ezk. - 20870 ELGOIBAR

943 744 112

Publizitatea: 943 743 704

barren.publi@elgoibarkoizarra.eus

barren@elgoibarkoizarra.eus

www.barren.eus

BARRENek bere gain hartzen du espazio arazoengatik iragarkiak lekuz aldatzeko eskubidea. BARRENek ez du bere gain hartzen Iritzia, Hitz eta klik eta eskutitzak ataletan adierazitakoen erantzukizunik. **KOORDINATZAILEA** Ainhoa Andonegi **KAZETARIAK** Ainhoa Andonegi, Asier Orbea, Ainara Argoitia **HIZKUNTZA ARDURADUNA** Ainara Argoitia **PUBLIZITATEA** Leire Rubio **MAKETATZAILEA/DISEINATZAILEA** Zalaa Arnaiz **ATARI DIGITALEKO ARLO TEKNIKOAREN ARDURADUNA** Aitor Lauzirika **ADMINISTRARIA** Amaia Arrizabalaga **KOLABORATZAILEAK** Ibon Serrano, Eire Vila, Manu Sanchez, Iosu Juaristi, Iñigo Lamelas, Edurne Izagirre, Paula Heras, Enez Ezenarro, Ane Astiazaran, Irati Agirreazaldegia, Jone Olaizola, Juan Luis Mugertza, Izaro Etxegibel, Iñigo Otaño, Iñaki goitia, Jose Ramon Cabrera, Alex Segade **INPRIMATEGIA** Gertu Koop.E. **TIRADA** 4.885 ale **LEGE GORDAILUA** SS-1.038/92 ISSN 1138-1855

BABESLEA:



LAGUNTZAILEAK:



Gipuzkoako Foru Aldundia

BARRENEk ez du bere gain hartzen IRITZIA eta ESKUTITZAK ataletan adierazitakoen erantzukizunik. Eskutitzak ondo identifikatuta egon behar dute. Ez ahaztu izen-abizenak, NANa eta telefonoa jartzea. Bidali helbide honetara: barren@elgoibarkoizarra.eus

► BERDEGUNEAK EZ DIRA TXAKURRENTZAKO KAKALEKUAK

Gure herriak ez digu kotxerik hartu beharrik gabe belarra zapaltzeko aukera handirik ematen, eta, hori gutxi ez balitz, herrian ditugun berdegune eskas horietan txakur kakaren bat aurkitzeko aukerak handiak dira. Belarra egoteak ez du txakurrak bertan kaka egitea baimentzen, eta, are gutxiago, hura jaso gabe alde egitea. Belarguneak ez dira animalientzako komunak. Umeek naturguneak bilatzen dituzte, baina horietan ezin izaten dute nahieran esploratzen ibili, txakurrentzako txizatokiak eta kaka-tokiak izan ohi direlako. Udalari eskatu

nahi diot neurriak har ditzala eta jabeei euren arduran daudenek zikintzen dutena jaso dezatela.

N. M.

ESKUTITZEI BURUZKO ARAUDIA

BARRENe edozein gutun argitaratu ahal izateko, honako baldintza hauek bete beharko ditu nahitaez:

1. Eskutitz guztiak identifikatuak egon behar dute: izen-abizenak, telefono zenbakia eta NAN zenbakia derrigorrezkoak dira.
2. 1.500 karaktere izan behar ditu gehienez eskutitzak.
3. Eskutitzak izen-abizenen inzialekin edota izen-abizenekin argitaratuko dira. Ezizenarekin ezingo dira sinatu gutunak. Onartu egingo ditugu identifikagarriak diren taldeak: "Ikastolako irakasleak", esaterako. Bestalde, sinatzailearekin batera beste lagun batzuk ere daudenean, hauek ere identifikatuta egon behar dute.
4. Pertsona eta erakundeek gutun-egilearen izen-abizenak jakiteko eskubidea izango dute gutun horretan euren izena aipatu edo erreferentziaren bat egiten bada eta gutuna inzialekin sinatuta badago.
5. Ez dira onartuko: biraoak, gutun iraingarriak eta errespetu faltaz idatzitakoak, buzoneatzeko edo kale banaketa egiteko idatzitako idazkiak, pertsona eta erakundeei zuzenduriko mehatxuak...
6. Ez dugu gazteleraz datarren eskutitz argitaratuko.



Atanasio Olazabal Eizagirre

2020ko irailaren 1ean hil zen, 92 urte zituela.
Sendiak bihotzez eskertzen ditu jasotako doluminak,
bai eta hileta elizkizunetara agertu izana ere.



IV. URTEURRENA

Lucia Larrañaga Idigoras

2016ko abuztuaren 14an hil zen, 60 urte zituela.

Izan zarenagatik, erakutsi duzunagatik, ez zaitugu inoiz ahaztuko!

Maite zaitugu.

Etixekoak



X. URTEURRENA

Jose Luis Huidobro Torinos

2010eko irailaren 4an hil zen, 58 urte zituela.

Beti izango zaitugu gogoan.

Emaztea, seme-alabak eta gainerako senideak.



Irailaren 14an irekiko dute Olaizaga kiroldegia eta hilaren 28an hasiko dira ikastaroak



Olaizaga kiroldegia irailaren 14an zabaltzeko asmoa dauka Udal Kirol Patronatuak, eta ondo bidean, hilaren 28an hasiko dituzte jarduera gidatuetako ikastaroak. Normalean, irailaren 1ean hasi ohi dira ikastaroak, baina arduradunek nahiago izan dute itxarotea, koronabirusaren pandemiak irailean zehar nolako bilakaera izaten duen ikusi arte. Hala ere, igeriketa ikastaroak ez dituzte oraindik martxan jarriko, igerilekuaren edukiera eta segurtasun distantzia ezin dituztelako bermatu.

Kirol Patronatuko arduradunek kontingentzia plan bat prestatu dute bazkideen eta erabiltzaileen segurtasuna eta higiena bermatzeko, eta COVID-19a hedatzeko ahalik eta arrisku txikiak izateko, Olaizaga kiroldegiko instalakuntzetan ezartzeko irizpide eta gomendio teknikoak bildu dituzte dokumentuan.

Eta hala, Elgoibarko Udal Kirol Patronatuaren Zuzendaritzak eta Elgoibarko Udalak arriskuei aurre egiteko konpromiso sendoa dutela adierazi dute eta jakinarazi dute erabiltzaileen eta langileen segurtasuna eta higiena bermatzeko neurri sistematikoak hartuko dituztela.

COVID-19a dela eta, ematen duten zerbitzuan gorabeheraren bat edo afekzioen bat balego, Patronatuaren Zuzendaritza osasun agintariekin jarriko litzateke harremanetan, neurri zuzentzaileak elkarrekin zehazteko.

Odol ateratzeak gaur, Jubilatuaren Biltokian

Azken bost hilabeteetan Olaizaga kiroldegian egin dituzten odol ateratzeak Jubilatuen Biltokian egingo dituzte aurrerantzean, eta gaur izango da aurreneko aldia. 18:30etik 20:30era eman ahal izango da odola. Elkartetik adierazi dutenez, COVID19 birusak eragindako osasun larrialdi egoeran, segurtasun neurriak indartu egin dituzte, odola ematera doazen pertsona guztien segurtasuna bermatzeko protokoloak ezarriz. Beharrezkoa izango da aurretiaz hitzordua eskatzea, 623 328 408 telefono zenbakira deituta edo Whatsapp bidez mezua idatzita.

Irailaren 27ra arte dute entitateek Euskaraldian izena emateko aukera

Azaroaren 20tik abenduaren 4ra izango da Euskaraldia ariketa sozialaren bigarren edizioa. 15 eguneko ariketa izango da. Bigarren edizioan, norbanakoek ez ezik, entitateek ere era aktiboan parte hartzeko aukera izango dute. Besteak beste, erakunde publikoek, ikastetxeek, elkarte eta mugimendu sozialek, merkataritza eta ostalaritzakoek, edota industria eta lan-munduari lotutako entitateek izango dute aukera Euskaraldian izena eman eta ariketa egiteko. Dagoeneko 50 entitateek baino gehiagok eman dute izena Elgoibarren, baina oraindik zabalik dago izena emateko epea. Interesatuak irailaren 27ra arteko epea dute. Irailaren 28tik aurrera, berriz, norbanakoen txanda izango da.

Santanako eta Santakutzeko aisialdi guneak berritu dituzte

Mendaroko Udalak 3.000 euroko inbertsioa egin du Santanako eta Santakutzeko aisialdi guneok berritzeko. Abuztuan zehar egin dituzte lanak: Santanan mahai eta eserlekuak berritu dituzte eta bi aldeko barbakoa eta iturri bat ipini dituzte. Era berean, ermitarainoko sarrera ere txukundu dute. Santakutzen, bestalde, mahai eta eserlekuak berritu dituzte eta barbakoa bikoitz bat ipini dute. Herritarrei eremuen erabilera arduratsua egiteko eskatu die Udalak, bai eta Covid-19a saihesteko ezinbestekoak diren segurtasun- eta higiene-neurriak betetzea ere.



Urriaren 16ra arte egongo da martxan herri barruko autobus zerbitzua

Abuztuan hasi zituzten Urazandi auzoko eskailera mekanikoak bi igogailurekin ordezkatzeko lanak. Construcciones Otegui Gaztañaga, S.L. enpresari esleitu dizkio Udalak lanak 423.066,05 euroren truke (BEZ barne) eta zazpi hilabeteko epea izango du, obra gauzatzeko. Obrak iraun bitartean auzotarrentzako autobus zerbitzua jarri du Udalak martxan, Urazandiko bizilagunen irisgarritasuna bermatzeko eta obrek ahalik eta kalte gutxien eragiteko. Urriaren 16ra arte egongo da martxan herri barruko autobus zerbitzu hori. 20 plazako autobus bat da (pertsonek ezgaituentzat egokituak). Epealdi honetan eskaria aztertuko du Udalak, eta zerbitzuaren benetako erabilera neurtuko du, aurrerantzean zein baliabide jarri behar diren erabakitzeko. Ordutegiari dagokionez, 10:00etatik 13:00etara eta 16:00etatik 19:00etara egongo da martxan autobusa, astelehenetik ostiralera. Hiru



ibilbide egiten ditu autobusak orduro: puntuan, Txarriduna biribilgunetik Urazandira; eta hogeian, Txarriduna biribilgunetik Erretsundira, eta hogeit gutxitan, Txarridunako biribilgunetik Urazandira.

Obren xehetasunak

Urazandiko auzotarren irisgarritasuna bermatzeko 1 eta 9 zenbakietako blokeen artean bi igogailu jarriko di-

tuzte. Gaur egun, Urazandi auzoan dauden desnibelak gainditzeko 6 eskailera mekaniko daude. Obra honekin oinezkoen kopuru handiena ibiltzen den lehenengo bi eskailera zatiak ordezkatuko dituzte. Igogailuak instalatzearekin batera, ingurua berrurbanizatzeko zenbait lan ere egingo dituzte: Euri-uren saneamenduan eta argiteria sarean hobekuntzak egingo dituzte, besteak beste.


Zazpi ikastarotako eskaintza eta 20 kirol makina ditu Mendaroko Goñati gimnasio berriak

Bukatu dituzte Goñati gimnasioa prestatzeko lanak, eta irailaren 1ean zabaldu zuten instalazio berria. Astelehenetik zapatara emango dute zerbitzua, astean zehar goiz eta arratsaldean (9:00-12:00 / 17:00-21:00) eta zapatuetan, goizez (9:00-12:00). Hogeit kirol makina jarri dituzte, besteak beste, bizikletak, korrika egiteko zintak, pesak... Ikastaroei dagokienez, zazpi ikastaro eskaini dituzte momentuz: Entrenamendu Plangintza Pertsonalizatua, Total Training, Junior Training, Senior Training, Abdominal express, Spinning birtuala eta Stretching. Ikastaro batzuk modu birtualean emango dituzte, baina profesional bat egongo da uneoro gimnasioan erabiltzaileari laguntzeko. Bazkideetak kiroldegian bertan egin behar dira. Aukeratzen den ikastaroko lehen saioa doan izango da, eta urteko bazkideetza egiten dutenek entrenamendu planifikazio pertsonalizatuko saio bat jasoko dute doan. "Mendarok jada baduen kirol eskaintzaren osagarri da hau; herrian bertan kirol eskaintza osoa eskainiko diogu herritarri. Herria bizi mantentzeko pausua berri bat da", esan du



lñaki Arregi alkateak. Herritarrei dei egin die zerbitzua proba dezaten eta argi utzi du hau hasierako eskaintza dela eta herritarren nahiei egokitzen saiatuko direla: "Ahal den neurrian, herritarrek gustuko dituzten ikastaro eta makinak ekartzen saiatuko gara".

94 positibo atzeman dituzte abuztuan Elgoibarren eta bost Mendaron



COVID19 kasuek gora egin zuten abuztuan Elgoibarren, eta 94 positibo atzeman zituzten guztira (uztailean 23 atzeman zituzten). Abuztu hasieran izan zen gorakadarik handiena, eta abuztuaren 5ean eta 7an, esaterako, hamarna kasu atzeman zituzten. Mendaron, bost izan dira Covid19 kasu positiboak abuztuan. Pandemia hasi zenetik 179 kasu positibo erregistratu dira Elgoibarren eta bederatzia Mendaron.

45.000 euro bideratu ditu Udalak Lekueder eta parrokia arteko galtzada hobetzeko



Lekueder eta San Bartolome eliza arteko galtzada-harriak kendu eta zoladura aldatzeko lanetan ari da Udala, inguruneko irisgarritasuna eta segurtasuna hobetzeko. 2019ko aurrekontu partehartzaileetan boto gehien jaso zuen bigarren proiektua izan zen (276 puntu), Azkue (San Roke) auzorako irisgarritasuna hobetzeko "Karakoleko" zubia konpontzeko proiektuaren atzetik (346 puntu).

Guztira 45.210 (BEZa barne) euro erabiliko ditu Udalak hobekuntza lan hauetarako, eta Landa e Imaz enpresak egin ditu. Abuztuan hasi ziren obretan, eta amaitzeaz daude.

Pentsio duinen aldeko elkarretaratzea astelehenean

Irailaren 7an ekingo die berriro mobilizazioei Elgoibarko Pentsiodunen Mugimenduak, eta elkarretaratzea egingo dute 19:00etan Kalegoen plazan, pentsiodunen bizi-baldintza duinak eskatzeko. Mugimenduko sustatzaileek diote Covid19aren krisiak are gehiago okertu dituela adinekoen bizi-baldintzak, eta mobilizazioetarako inoiz baino arrazoi gehiago daudela. Anbulatorioa 17:00etan ixteko erabakiak bereziki adinekoen osasun egoerari eragiten diola uste dute, eta gainera, pentsioak ez eguneratzeak bizi-baldintza duinak mantentzea ezinezko egiten duela. Hor-taz, 1.080 euroko gutxieneko pentsioa aldarrikatzearekin batera, anbulatorioan 24 orduko arretea emateko eta Lehen Mailako arretea zuzena areagotzeko eskatuko dute.

Udako Euskal Unibertsitateko ikastaroak doan edo erdi-prezioan egiteko aukera

UEUren udazkeneko ikastaroak doan edo erdi-prezioan egiteko aukera izango dute herritarrek Elgoibarko Udalaren dirulaguntzei esker. Ikastaroer buruzko informazioa www.ueu.eus atarian kontsultatu daiteke, eta nahi dutenek webgunean bertan eman ahal dute izena. UEUren bulegoetan (Bilbo, Iruñea, Eibar) ere badago izena emateko aukera.

Elgoibarko Udalak matrikularen kostu osoa ordainduko die Elgoibarko ikasleei, langabeei, pentsiodunei eta jubilatuei; eta matrikularen kostuaren erdia, aldiz, lanean dihardutenei. Eskakerak aurkezteko epea urriaren 30ean bukatuko da.

Informazio gehiagorako Euskara Sailera jo daiteke (943 744 366 / euskara@elgoibar.eus).

Joan Mari Torrealdai galdu zuen uztailan euskararen herriak

Ereferente eta eragile handi bat galdu zuen euskarak eta euskal kulturak uztailaren 31n: Joan Mari Torrealdai Nabea (Forua, 1942 - Usurbil, 2020). Frantziskotarra izandakoa, euskal idazlea, euskaltzaina, kazetaria eta soziologoa izan zen, eta minbiziak hil zuen, 77 urte zituela. 2015ean jakinarazi zuen hezur muineko minbizia zeukala, eta berak *Egunkaria* itxi ondoren jasandako torturekin lotu zuen. "Esaten nuen hezur muinerako min egin zidatela. Hezur muinean agertu zitzaidan minbizia". Usurbilen egin zitzaion azken agurra Torrealdairi, azken urteotan bizileku izan zuen herrian.

Sortzez Forukoa zen Torrealdai, baina "kulturalki" Arantzazun egin zela esana zuen. "Txokokerien gainerik Euskal Herria osotasunean ulertzeko modu bat zor diot Arantzazuri", kontatu zuen *Berrria* egunkarian. 1954an eraman zuten Oñatiko seminariora, 12 urte zituela. Zazpi urte egin zituen han. Arantzazu euskal intelektual askoren bilgune izan zen, eta han murgildu zen. Euskaltzaindiak ere Arantzazun egin zituen bilera erabakigarri asko, tartean euskara batuari buruzko kongresua (1968an), eta han ere parte hartu zuen [Geroago, 1975ean euskaltzain urgazle izendatu zuten, eta oso 2007an]. *Jakin* aldizkaria bera ere Arantzazun sortu zuten, 1956an, Torrealdai seminariora iritsi eta gutxira, eta gerora, 1953an, han ere sartu zen. Garai zailak ezagutu zituen aldizkariak, zentsuragatik, eta zentsura aztergai hartu zuen Torrealdaiak. Debeku eta urte ilun askoren ostean, 1977an, lortu zuten



Jakin aldizkaria kaleratzeko baimena, bera zuzendari zela, eta 42 urtez izan zen hango zuzendari. Elkar sortzen ere lagundu zuen, eta 1980an herri ekimeneko proiektu handi batean sartu zen: *Euskaldunon Egunkarian*. Administrazio kontseiluko lehendakaria izan zen *Euskaldunon Egunkarian*, harik eta Espainiako Auzitegi Nazionalako Juan del Olmo epailearen aginduz itxi zuten arte. 2003ko otsailaren 20an izan zen hori, eta orduan hasi zen Torrealdairen eta beste askoren gurutzbidea. BARRENEAN ere eman zuen haren berri, 2014ko urriaren 17ko alean, 924. zenbakian. *Egunkaria*-ren auzi ekonomikoa betiko itxi zutenean eman zигun elkarriketa. "Lasaitu handia hartu dugu, baina ezin esan justizia egin denik" eraman genuen izenburura.

Bateragune auziko zigorrak baliogabetu zituen Auzitegi Gorenak

Uztailaren 31n gertatu zen. Espainiako Auzitegi Gorenak auzian kondenatutakoen kontrako zigorrak baliogabetu zituen, eta horrenbestez, Arnaldo Otegi EH Bilduko koordinatzaile nagusiarri ezarritako 2021. urteko otsailera arteko inhabilitazioa ere bertan behera gelditu zen.

Bateragune auziko operazioa 2009ko urriaren 13an egin zuten, orduan Auzitegi Nazionalako epaile zen Baltasar Garzonnek zuzenduta. Bi urte geroago eman zuen epaia Garzonek eta ETAko buruzagi izatea leporatu zien Otegi eta Rafa Diezi, eta partaide izatea gainerakoei: Sonia Jacinto, Arkaitz Rodriguez eta Miren Zabaletari. Sei hilabete geroago, Gorenak berretsi egin zuen epaia, baina ETAko buru izateko akusazioa kendu zien Otegi eta Diezi eta espetxe zigorrak murriztu zituzkien guztiei. Ondoren, babes helegitea aurkeztu zuen defentsak, baina Auzitegi Konstituzionalak ez zuen onartu. Espainiako justizia sistemaren bidea han itxi zen, baina Estrasburgora jo zuen orduan defentsak. 2018ko azaroaren 6an, Bateragune auzian Espainiako Auzitegi Nazionalako epaimahaia ez zela inpartziala izan ebatzi zuen Estrasburgoko epaitegiak. Epaimahai hark Europako Giza Eskubi-



Bateragune auziko kondenatuak.

deen Ituneko 6.1 artikulua urratu zuela arrazoitu zuen Estrasburgok. Epaia haren ondotik, defentsak kasua berriro aztertzekeko prozesuari ekiteko eskatu zuen. Auzitegi Gorenak baimendu zuen eta fiskaltzaren esku laga zuen kasua. Eta 21 hilabete geroago, uztailaren 31n, etorri zen behin betiko erabakia. "Gaur baieztatu da gure espetxeratzea Euskal Herriko bakearen aurkako operazioa izan zela. Espainiako Estatuan justizia independenterik ez dagoela gogoratzeko eguna da", zablada zuten kondenatuek.



Ikasturte hasiera, ohi baino aldapatsuagoa

Iritsi da iraila, ohikoa baino aldatz handiagoarekin. Irailaren 7an itzuliko dira aurrez aurreko eskolara Haur Hezkuntzan, Lehen Hezkuntzan eta Derrigorrezko Bigarren Hezkuntzako 1. eta 2. mailetan eta Eusko Jaurlaritzako Hezkuntza Sailak zehaztutako protokolora egokitzeko lanetan ari dira ikastetxeetan, erlojuaren kontra. Ikasle guztientzako hezkuntza integrala ziurtatzeko egin du Jaurlaritzak aurrez aurreko eskolen alde. Nolanahi ere, Covid-19ak sortutako pandemiak udan izan duen bilakaera ikusita, eta ikasturte hasieran eta "ikasturtearen lehen hiruhilekoan" birusak izan dezakeen eragina aurreikusiz, betebeharreko batzuk zehaztu eta gomen-dio batzuk eman ditu Hezkuntza Sailak, ahal den neurrian arriskuak minimizatzen.

Hasierako zirriborrotik, baina, aldaketak izan dira, bereziki ikasturtea hasteko egunen inguruan. Derrigorrezko Bigarren Hezkuntzako hirugarren eta laugarren mailako ikasleak eta Batxilergokoak irailaren 15ean itzuliko dira ikastetxera, irailaren 7an barik. Lanbide Heziketan ere aldatu egin dute hasiera eguna. Goi mailako zikloetan, irailaren 14an hasiko dira bigarren mailakoak, eta 16an lehenengo mailakoak. Erdi mailako zikloetan, berriz, hilaren 21ean hasiko dira bigarren mailakoak, eta hilaren 23an lehen mailakoak.

Bien bitartean, hezkuntzan grebara deitu dute sindikatu guztiek irailaren 15erako.

- AINARA ARGOITIA -



PROTOKOLOKO PUNTU NAGUSIAK

1. Neurri orokorrak: Ikastetxeak eta haien inguruak "leku seguru" bihurtu nahi ditu Jaurlaritzak. Horretarako, hartu beharreko segurtasun neurriak definitu ditu. Horien artean daude: kontaktuak mugatzea, pertsonen arteko distantzia zaintzea, maskarak erabiltzea, espazio itxiak sarri aireztatzea eta eskuen higiena, oinarritzeko neurri gisa.

Higiene-neurriak eta tenperatura hartzea: Egunero, higieneari eta portaerari buruzko prebentzio-neurriak gogoraziko dizkiete haurrei eskolan, eta ikasle eta langile guztiei

hartuko diete gorputz-tenperatura, lanaldia hasi aurretik. Hala ere, ikastetxera joan aurretik ere hartu behar da tenperatura, etxean, eta esan gabe doa sukarra (<37º) edo COVID-19aren sintomak dituztenak etxean gelditu beharko direla.

Haur Hezkuntzan eta Lehen Hezkuntzan (hasiera batean, 1. eta 2. mailetan) ikasle-talde egonkorrek sortuko dira. Horiek, tutorearekin batera, bizikidetza-talde egonkorrek osatuko dituzte. Talde horietako kideak elkarren artean sozialiatu ahal izango dira, distantziak zorrotz bete beharrik gabe. Hala ere,

talde horiek ikastetxeko beste talde batzuekin nahastea saihestu beharko dute. Zentroko espazio komunetan pertsonak elkartzeko ere saihestuko da. Edukiera mugatu beharko da, eta ezingo dira hamar lagunetik gorako bilerak egin. Haur-eskoletan ere bizikidetzatalde egonkorak ezarri beharko dituzte, urrutzea ezinezkoa delako horietan.

Maskara: Arau orokor gisa, ikastetxeko langile eta ikasle guztiek nahitaez jantzi beharko dute maskara espazio guztietan eta une oro. Irakasleek, esaterako, beti erabili beharko dute maskara, baita bizikidetzatalde egonkorretan ere. Haur Hezkuntzan, 6 urtera arte, maskara erabiltzea ez da derrigorra izango, nahiz eta, "posible den kasuetan", adin horretatik beherakoek erabiltzea ere gomendatu duen Hezkuntza Sailak. Lehen Hezkuntzako 1. eta 2. mailetan ezarritako bizikidetzatalde egonkorretan, ikasleek maskarak kendu ahal izango dituzte aire zabaleko jardueretan, ziurtatzen bada ikasleen artean ez dela kontakturik egongo. Gelan, ikasleak eserita eta elkarren artean 1,5 metroko distantzia gordeta jarriko badira ere, maskara jantzi egin beharko dute, hasieran kontrakoa zabaldu bazen ere. Mugimendua, kantua edo antzekoak eskatzen dituzten jardueretan ere, maskara jantzi beharko da eta pertsonen arteko distantziak zaindu. Ikasle eta irakasle bakoitzak nork bere maskara eraman beharko du eskolara, baina ikastetxeak prest izan beharko ditu batzuk, gabe agertzen denari emateko.

Sarrera-irteera mailakatuak: Ikastetxeetara mailaz maila sartu eta irten beharko dira ikasleak eta eskola barruan zirkuituak zehaztuko dituzte, korridoreetan eta eskaileretan jenderik ez pilatzeko. Era berean, saihestu nahi da ikasleen etxeetako ikastetxera sartzeko, eta beraz, Haur Hezkuntza langile batek lagunduko dio ume bakoitzari bere gunerako bidean.

Garbiketa eta aireztapena: Espazioak sarri-sarri "ahal den guztian"- aireztatu eta garbitu beharko dira. Komunak eta beste gela komun batzuk erabiltzeko txandak ezarriko dituzte. Ahal den neurrian, eskolak emateko aire zabaleko espazioak erabiltzeko gomendatu du Hezkuntza Sailak.

2. Eskola garraioa: Ikasleek autobusean eserleku jakina izatea gomendatu dute Hezkuntza Sailetik, eserleku bera beti. Ikasle guztiek eta gainerako langileek maskara jantzi beharko dute autobusean. 6 urtez beherakoentzat ez da derrigorra izango, baina bai gomendagarria. Autobusean ezingo da ez jan eta ez edan, maskara kendu beharrik ez izateko.

3. Eskolaz kanpoko jarduerak: Ikasturte hasieran, ikastetxeentzako errefortzu-programekin (Bidelaguna) zerikusia dutenak bakarrik antolatuko dira. Gainerako eskolaz kanpoko jarduerarik ez da izango, harik eta ikasleak ikastetxera itzultzearen bilakaera eta pandemiarena berarena ikusi arte. Gero, egoerak aukera ematen duela ziurtatuz gero, irizpide orokor gisa honako hau eman dute: ikastetxeko ohiko biziki-

detza-taldee eustea eta kontaktu fisikorik ez dakarten jarduerak izatea.

4. Jantokia: Ikasleen hazkunde pertsonalerako eta sozializaziorako eta guztien aukera-berdintasuna bermatzeko ezinbestekoa delako eutsi diote jangela-zerbitzuari, baina kontingentzia-plan orokorrean ezartzen diren oinarriko prebentzio- eta segurtasun-neurriak bete beharko dituzte haietan.

5. Kudeaketa ikastetxeetan: Ikastetxe bakoitzean, zuzendaritza-taldeaz gain, erreferentziazko arduradun bat izendatu beharko dute COVID-19arekin lotutako gaietarako, eta ikastetxe bakoitzak erreferentziazko Erakunde Sanitario Integratu bat izango du. Ikastetxe batean kasuak baieztatzen badira, zuzendaritza zaintza-sarearekin jarriko da harremanetan. Sare hori ESiko koordinatzaile batek ezarriko du eta hark adieraziko dio zer jarraibide jarraitu behar dituen. Ikastetxeetan, isolamendu-gela bat izendatu beharko dute, COVID-19aren sintomak agertzen dituzten ikasleak eta irakasleak bakartzeko, gurasoak edo etxekoren bat bila joan arte.

Ikastetxean sintomatologia agertuz gero, sintomak eman dituenak bakartu egingo dute, etxera joan arte, eta probaren emaitza jakin arte gutxienez etxean egon beharko da. Emaitza jakin bitarte horretan, eskolan normaltasunez jarraituko dute, higiene-neurriak zorrotz. Kasuak baieztatzen bada, kontaktuen azterketa egingo dute, bai hezkuntza-ingurunean zein kanpoan. Osasun Publikoko Zuzendaritzak zehaztuko du jarraibidea, baina ikastetxean, harreman estuak identifikatzeko, honako hauek hartuko dituzte kontuan: 1. Positibo eman duena bizikidetzatalde egonkor batekoa bada, harreman estutzat hartuko dira taldeko kide guztiak. 2. Positibo eman duena ez bada bizikidetzatalde egonkor batekoa, ikastetxeko harreman estuak identifikatuko dituzte, ikastetxeko zuzendaritzarekin eta Prebentzio Zerbitzuko koordinatzailearekin lankidetzan. Kontaktua estuek proba egin beharko dute eta berrogeialdia bete beharko dute.

Beraz, hiru agertoki posible hartzen ditu kontuan Hezkuntza Sailak.

a) Agerraldi kontrolatuak edo noizbehinkako kasuak (Transmisio-kateak ondo definituta daudenean). Egoera hau gerta daiteke talde bakar batean, edo, aldi berean, independenteak diren bizikidetzatalde egonkor batzuetan. Halakotan, kasuak isolatu egingo dira eta talde edo gela independente bakoitzeko kontaktuak identifikatu eta berrogeialdian jarri.

b) Agerraldi konplexuak edo noizbehinkako komunitate-transmisioa (Transmisio-kateak erraz identifikatu ezin direnean edo adar bat baino gehiago agertzen direnean, kasu bat baino gehiagoren sorrerarekin). Kasu horretan, kasuen arteko lotura aztertuko dute, eta aztertuko da berrogeialdia bete behar dutenen taldea handitzea, bai eta gelak edo lerroak ixtea ere.



c) Kontrolik gabeko transmisio komunitarioa (Ikastetxean kontrolatu gabeko transmisioa gertatzen dela uste denean, kasu asko agertu direlako). Halakotan Osasun Publikoko Zerbitzuak arrisku-ebaluazio bat egingo du, transmisioa non eman den ikusteko, eta azken buruan, erabaki dezake zentroko eremu bat ixtea edo ikastetxe osoa aldi baterako ixtea ere bai.

6. Alde emozionala: Bizi izandako egoera bereziak eta

bizitzen ari garenak haurren alderdi emozionalean ere izan du eraginik, bistan da, eta hori kontuan hartzeko eskatu die Hezkuntza Sailak irakasle guztiei. Ikasleei gaixotasunaren inguruan dituzten "izu eta estuasunak" murrizten laguntzeko eta beren bizitzetan bigarren mailako edozein inpakturi aurre egiteko duten gaitasuna bultzatzeko. Era berean, tentuz jokatzeke ere eskatu diete, birusaren eraginpean egon ahal izan diren ikasle eta lankideak ez estigmatizatzeke.

Hezkuntzako profesionalen eta gurasoen buru-nekea

Paperak dena eusten du, baina egunerokoa errazik ez dago, eta buruhaustea badarabilte ikastetxeetan ere. Haur Eskoletan eta Derrigorrezko Bigarren Hezkuntzan nahiz Lanbide Heziketan probaldi bat izan zuten uda-aurrean, baina orain hasten da benetako erronka. Ikasle guztiak itzuliko dira aurrez aurreko eskoletara, eta Hezkuntza Sailak zehaztutako protokolora egokitu behar izan dira eskoletan. Jangela, aurten eskolatuko direnen egokitzapena, patioaren erabilera... ha-maika gai eta beste horrenbeste burukomin eta kezka badira, bai hezkuntzako profesionalen artean, bai eta gurasoen artean ere. Gauza jakina baita eskolak zer erabaki hartuko duen jakitea ezinbestekoa dutela gurasoek kontziliaziorako, eta aurten, informazio hori nahi baino beranduago iritsi da. Era berean, ikastetxe batzuetan, eskolan egiten diren jarduera batzuen ardua gurasoena da zuzenean eta propio, eta ardura kezka ere bada. Hala da, esaterako, zaintza-zerbitzua Mendaron. Arno Guraso Elkarteak kudeatzen du, baina ikastetxeko gela batean ematen da zerbitzua. Orain, baina, zerbitzu hori ezin dute ikastetxean eman, eta horregatik, Udalera jo zuten gurasoen ordezkariak lokal eske. Sei ume zeuden izena emanda goizeko zaintza-zerbitzurako, baina Udalak ezetza eman die, arrazoituz ikastolako bizikidetzatalde iraunkorrek ezin direla bermatu, eta beraz, ezin direla Eusko Jaurlaritzara eta Mendaro ikastolaren irizpideak mantendu. Elgoibarko Herri Eskolan ere guraso elkarteak antolatzen du zaintza, eta zerbitzuari eutsi egingo diotela jakinarazi dute. Hala ere, erabiltzaile kopurua nabarmen murriztu da, sei umek bakarrik eman dutelako izena. Beste kasu bat da Elgoibar Ikastolako. Ikastolak berak antolatzen du zaintza-zerbitzua goizean eta eguerdian, eta biak mantenduko dituztela jakinarazi dute, nahiz goizekoa adin txikienez mugatuko duten.

Aurten eskolatuko direnen gurasoek bazuten beste kezka bat: 2 urtekoen egokitzapena. Gure ikastetxe guztietan mantenduko da egokitzapena, pedagogikoki beharrezko ikusten dutelako, baina talde txikiagoetan egin beharko dute, ezinbestean, eta txandaka. Gurasoen presentzia baimenduko dute, baina segurtasun neurriak betetzen direla bermatuta.



Patioa eta jantokia nola antolatu izan da zuzendaritzetan beste kezka nagusietako bat. Jolastokian espazioak sortuko dituzte eta talde bakoitzak bere espazioa izango du. Orduetegiak ere moldatu beharko dituzte, eta txandak ugaritu, ahal den neurrian behintzat ikasle pilaketa gehiegizkorik eman ez dadin. Neurri hori jantokian ere aplikatu beharko dute. Elgoibar Ikastolan eta Mendaro ikastolan, esaterako, txikienei, gelan bertan emango diete jaten: Elgoibarren, HH2koei, eta Mendaron, HH2 eta HH3koei. Gainerakoek jangela bazkalduko dute, baina taldeak ez nahasteko, txandak ugarituko dituzte eta ikasle bakoitzak bere leku finkoa izango du. Mendaro ikastolako kasuan, gainera, egunero jangela gelditzen direnak bakarrik onartuko dituzte, eta ez dute epez kanpo izena ematen duen inor onartuko [irailaren 14a da azken eguna]. Herri Eskolan, txanda bat gehituko dute. Lehen bi txanda zituzten, eta orain hiru izango dituzte, eta gainera, espazio bat ere egokitu dute jangela funtziorako [behar izanez gero, bigarren espazio bat erabiltzeko aukera ere badute]. Garraioarena ere lotu behar izan dute Herri Eskolan. Autobusa mantenduko dute, baina ikastetxetik bi kilometro edo gehiagora bizi direnek bakarrik erabili ahal izango dute (berez hala zen lehen ere, baina praktikan, gertuagokoek ere erabiltzen zuten). Era horretan ikasle kopurua gutxituko zaie eta horrek ahalbidetuko die autobusean distantziak hobeto zaintzea.

Ilusio neurtua eskolaz kanpoko jardueretan ere

Eskolaz kanpoko jarduera asko zintzilik daude, espazio publikoetan gauzatzen direlako batzuk eta ondorioz udalek hartuko dituzten erabakien zain daudelako antolatzaileak, edo federazioek zer zehaztu zain daudelako kirol klubetan... Baina, badira, eskola-umeekin batera astelehenean ohiko jardunera itzuliko direnak. Elgoibarko eta Mendaroko musika eskoletan astelehenean itzuliko dira aurrez aurreko eskoletara. Elgoibarko Inazio Bereziartua Musika Eskolan egokitzapen-halako bat eginga dute, ikasturtearen azkenean ere egon zirelako eskolak aurrez aurre ematen adin batetik aurrerako ikasleei, baina orain, ikasle gehiago izango dituzte, eta hortaz, talde gehiago egin behar izan dituzte, ikasle kopuru gutxiagokoak. Kezka ez du ezkutatu Imanol Garaizabal musika eskolako zuzendariak, baina gauza batzuk finduta, hasteko moduan daudela uste du, segurtasun baldintzetan. Musika eskolan, segurtasun tarteak zainduko dituzte eta maskara janztea derrigorra izango da. Soilik haizezko instrumentua jotzen dutenek kendu ahal izango dute, entsegatzeko orduan. Mendaroko Ameikutz musika eskolan ere astelehenean ekingo diote ikasturteari, azken ordukorik ezean. Aurten, matrikulazioan jaitziera izan dute (100 bat ikasletik 70era), eta berez kaltegarri dena mesedegarri suertatu zaie pandemia egoera honetan. Atzo zen biltzekoa Klaustroa azkeneko detaileak lotzeko, baina kontuan izanda taldeak gehienez zortzi lagunekoak direla eta ekintza gehienak bakarkakoak direla ez dute aparteko arazorik aurreikusten. Maskara erabiltzea, hori bai, derrigorra izango dute, txistuko ikasleek ez beste guztiak.

Ludotekak eta gaztelekuak

Elgoibarko Udal Ludotekan eta Gaztelekuan ere datoren astean hasiko dute ikasturtea: astelehenean, Ludotekan, eta eguaztenean, Gaztelekuan. Irailean, baina, aire libreko ekintzetara mugatuko dute eskaintza. Urritik aurrera



nahiko lukete "ahalik eta normaltasun handienarekin" lokalak erabiltzen hasia, baina COVID-19aren pandemiaren bilakaerak baldintzatuko du hori. Mendaroko Kilkerzulo Ludotekako eta Gaztelekuko arduradunek atzo zuten bilera egitekoa Udaleko arduradunekin, baina Amagoia Zabalak aisialdi espazioetako arduradunak aurreratu zuen hamabost bat egunean hasteko bidea ikusten zutela. Protokoloak zehaztu dituzte, eta egoera berrira egokitzeko modua ikusten dute, nahiz jakin egunean-egunean gertatzen denari adi egon beharko direla eta aurreikuspenak ere aldatu daitezkeela. Aurreratu zuenez, baina, ludotekan, Mendaro Ikastolan sortutako bizikidetzatalde egonkorak mantenduko dituzte. Txandak eta egutegiak moldatuko dituzte horretarako, eta horrek ezinbestean ekarriko du ludotekan izena emanda ez zeudenean, aurten, kanpoan uztea [Laz, asteko bi egunetan izena emanda ez zaudenean ere izaten zuten ludoteka erabiltzeko aukera]. Gaztelekuan ere gehieneko kopuru bat zehaztuko dute, Udalarekin adostuta, eta orain arte bezala txokoetan antolatuko dute barrua, baina txokoak ugarituta. Adinka antolatuko dituzte txandak, ahal den neurrian Elgoibarko Institutuko lagun-taldeak errespetatuta, eta herrikoetara mugatuko dute sarrera. Era berean, Gaztelekuan sartzen diren guztien zerrenda osatuko dute arduradunek, kasurik agertuko balitz, harekin harreman zuzena izan dutenak ahalik eta azkarren identifikatzeko. Aurreratu dute, hori bai, ZubiGazte programarik ez dela izango momentuan eta irteerarik ere ez dutela antolatuko, baina kultura eskaintzari, esate baterako zine-emanaldiei, eusteko asmoa dutela, higiene eta segurtasun neurriak errespetatuta. Higienea; horixe izango da bi espaziotan landuko duten gai nagusietako bat: higiene-ohitura egokiak barneratzen ikastea da asmoa.

Eduardo Arrillagaren argazki erakusketari eraso diote



Eduardo Arrillaga bera ibaira bota dizkioten argazkiak ateratzen.
Arg.: Toni Galindo

Koronabirusak zapuztutako San Bartolome jaietako ekimen bakarrenetarikoa izan da Edu Arrillagaren *Photo Klean* argazki erakusketa. Sokamuturreko eta Txiki Eguneko 30 argazki jarri dituzte ikusgai kalean tamaina erraldoian, eta joan zen zapatuan horietako zenbait argazkiri eraso egin zieten. Sei argazki desagertu ziren, baina denak berreskuratutako dituzte eta astelehenera arte egongo dira ikusgai.

San Bartolome jaiak gogoan izateko eta koronabirusaren pandemiak herritarrei eragin dien ezinegona arintzeko modu bat jaietako argazkiak erakustea izan zitekeela pentsatu zuen Edu Arrillaga argazkilariak konfinamenduan zehar. 2001ean argitaratutako Sokamuturra liburutik berreskuratutako argazkiak eta ondorengo urteetan ateratako beste argazki batzuk erakustea zen hasierako ideia, baina horiekin batera, Txiki Egunari buruz prestatzen ari den erreportajeko zortzi argazki ere zintzilikatu ditu ikusgai Errosario kalean, hain zuzen ere, Txiki Egunaren arima den kalean. 2 x 1,33 metroko taimainan jarri ditu guztiak, eta argazki gehienak atera ziren leku berean kokatuta daude. Arrillaga "pozik" dago erakusketak izan duen harrerarekin, eta esan duenez, herritar askok zoriondu dute egindako lanagatik. Hala ere, dena ez da zoriona izan erakusketa honen buel-



tan, eta joan zen zapatu gauean eraso egin zioten erakusketari. Sei argazki desagertu ziren erakusketatik, eta horietako batzuk errekatik berreskuratutako dituzte Edu Arrillagak berak. Kulturari eraso egin diotela adierazi du argazkilariak, eta gaine-

ratu du beste erasoren bat jasan arren ere, berriz berreskuratutako dituztela argazkiak eta berriz jarriko dituela ikusgai, behin eta berriro, kulturak ez duelako horrelako erasorik merezi. Irailaren 7ra arte egongo dira ikusgai argazkiak.



Buruhandi berriak, estreinatzeko zain

Aurtengo sanbartolomeetan erraldoi berriak estreinatzeko asmoa zeukan Elgoibarko Udalak, baina koronabirusaren eraginez, bertan behera utzi behar izan dituzte jaiak, eta ondorioz, Elgoibarko kaleak ezagutu gabe geratu dira Basandere, Basajaun, Tartalo eta Mari. Euskal mitologiako lau pertsonai hauek izango dira aurrerantzean umeen atzetik korrika ibiliko diren buruhandiak, baina estreinatzeko zain daude oraindik. Hala ere, jendaurrean jarri dituzte ikusgai Elgoibarko erraldoiekin, zezenziketekin eta orain arteko buruhandiekin batera: azken 25 urteotan Elgoibarko umeak beldurtzen jardun duten Mickey Mouse, ipotx zoriontsua, Donald ahatea eta Pinotxo laukotea, eta 2015ean ekarri zituzten aittitta, amama, sorgina eta pirata. Abuztuaren 23tik 31ra Aita Agirreko sarrerako zaindaria bilakatu dira guztiak, Nafarroako Blanca I. eta Martin gaztea errege-erreginekin eta Altzola dorretxekeko Aszenzio Altzola eta Katalina Ibarra jaun-andreekin batera. Eta ez da falta izan iazko sanbartolomeetan herritarren begirada guztiak bereganatu zituen Mauxitxaren figura ere. Udaleko arduradunek esandakoaren arabera, herritarren interesa piztu du erakusketak. Guztira 750 lagun gerturatu dira erakusketara: 322 ume eta 398 heldu.



LANA.....
Eskaerak

Erizain laguntzailea naiz eta adinekoak zaintzen egingo nuke lan.
☎ 643 410 742

Adinekoak zaintzeko prest nago. Orduka, ospitalean, gabez edo etxeko langile moduan.
☎ 631 465 603

Adinekoak zaintzeko edo garbiketa lanak egiteko prest nago. Orduka edo etxeko langile moduan.
☎ 632 452 026

Adinekoak zaintzeko prest nago. Euskalduna naiz.
☎ 617 571 210

Adinekoak edo umeak zaintzen edo beste edozertan egingo nuke lan.
☎ 632 893 515

Neska arduratsua naiz eta lan egin nahi nuke. Adineko pertsonak zaintzeko nahiz garbiketa lanetarako prest nago.
☎ 642 325 499

Asteburuetan adinekoak orduka zaintzeko prest nago. Berehala hasteko prest.
☎ 632 344 209

Pinuak moztu edo antzerako basolanak egiteko prest nago. Adinekoak zaintzeko prest ere bai, eta baita sukaldari laguntzaile edo zerbitzaile lanetan aritzeko ere.
☎ 642 676 242

Adinekoak zein umeak zaintzeko prest, interna moduan ere bai.
☎ 632 024 871

Edozein lan egiteko prest nago, orduka. Asteburuetan etxeko langile moduan ere bai.
☎ 643 246 279

Adinekoak zaintzen edo beste edozertan egingo nuke lan. Etxeko langile moduan nahiz bestela.
☎ 643 977 786

Adinekoak zainduko nituzke, orduka edo asteburuetan.
☎ 688 724 060

Merkatu txikiko iragarkiak hiru astez argitaratzen ditugu. Salmenta eta alokairu iragarkiak ordaindu egin behar dira. Etxebizitzak, garajeak eta lokalak: 18€ (alokairua) - 22€ (salmenta). Autoak saltzea: 18€ . Bestelakoak: 10€ . Iragarkiarri erretratua jarriz gero, 6€ gehiago ordaindu behar dira.

BAZKIDEENTZAKO PREZIOAK:
Etxebizitzak, garajeak eta lokalak: 15€ (alokairua) - 20€ (salmenta). Autoak saltzea: 15€ . Bestelakoak: 8€ . Iragarkiarri erretratua jarriz gero, 5€ gehiago ordaindu behar dira.

BARREN sare sozialetan

facebook.com/barrenaldizkaria twitter.com/barreneus instagram.com/barrenaldizkaria

administradores Consejo Vasco de Colegios de Administradores de Finanzas *Erakundea Finantza Administrazioetarako*

ROSA Ma PINTADO

Etxaldean Administrazioako-Gradu ikasketen arduraduna Alcala de Henareseko Unibertsitatean, eta Gipuzkoa, Bizkai eta Arabako, Errioxako eta Kantabriako ikastetxeetan. Zuzenbidean lizentziatua. Kolegiatu zenbakia: 749

660 969 679
rosapf@telefonica.net

Igogailura sartzeko hainbat eskailera dituen eraikin batean bizi naiz. Jakin nahiko nuke komunitateari igoera-arrapala bat jartzeko eskatu ahal izango litzaiokeen, nire semearen paseoa-aulkiarekin eskailera horiek igo behar baitituz.


LPHren azken berrikuntzaren arabera eraikinek irisgarritasuna bermatu behar dute, beraz, jabeak guztiek dute baimena baldintza horiek behar bezala bete ezean eskatzeko. Zentzu horretan, derrigorrezkoa izango da igogailuei edo kanpoaldearekin lotura errazten duten bestelako gailu mekaniko eta elektronikoei buruzko jarduketak egitea, eta ez da beharrezkoa izango Jabeen Batzarraren alde aurreko adostasunik, diru-laguntza edo laguntza publikoak deskontatu ondoren, zenbatekoa gastu arrunten hamabi hileko arrunta baino handiagoa ez bada. Lege erreforma hori batez ere desgaituengan pentsatuz egin bazen ere, guztiz aplikagarria da zuk azalduko kasuan ere. Izan ere, gainera, arrapala aprobetxagarria izango litzateke elbarritasuna izan dezaketean edo behar duten gainerako jabeakideentzat ere.

Ondorioa. Erabakia baliozkotasunez hartu ondoren, kostua jabeakide guztien kontura izango da, baita aurkako botoa eman dutenen kontura ere. Erabaki hori hartzen ez bada, egokitzapen horiek eskatu dituztenek hartuko dute beren gain aipatutako hileko kuotetatik gorako kostua.


ASESORIA GO/R AHOLKULARI KOLABORATZAILEA
San Bartolome, 2



Argazkiak eguazten eguerdia (12:00ak) baino lehen ekarri behar dira BARRENEko bulegora, edo barren@elgoibarkoizarra.eus e-postara bidali.



Zorionak, **Elur!** Atzo 7 urte! Muxu handi bat denon partez!



Zorionak, **Inge**, abuztuaren 29an 2 urte bete zenituelako. Mundiala zara, maitea!



Zorionak, **Enaitz**, bihar 10 urte beteko dituzuelako. Ondo pasa eta muxu handi bat denon partez.



Zorionak, **Naroa**, uztailearen 30ean 3 urte bete zenituelako. Muxu potolo bat familiakoen eta bereziki, Gorkaren partez.



Zorionak, **Iraia**, eguaztenean 7 urte bete zenituelako. Muxu handi bat etxekoan eta lagunen partez. Segi beti bezain jator.

Erretratu bakarrek agurra: 4'50€. Argazki bikoitza: 7€. Hirukoitza: 9€. Hiru lagunetik gorako taldeak: 15€

ELGOIBARKO IZARRAKO BAZKIDEENTZAKO PREZIOAK

Erretratu bakarrek agurra: 3'50€. Argazki bikoitza: 6€. Hirukoitza: 8€. Hiru lagunetik gorako taldeak: 12€

Argazkiak eguazten eguerdia (12:00etarako) baino lehen ekarri behar dira BARRENEko bulegora, edo barren@elgoibarkoizarra.eus e-postara bidali.

Botika ordutegiak 09:00 - 13:00 / 16:00 - 20:00

GUARDIAK

Egunez: 09:00-22:00

Iluntzean: 20:00-22:00

Larunbatak: 9:00-14:00 (*)

4 BARIKAKUA	5 ZAPATUA	6 DOMEKA	7 ASTELEHENA	8 MARTITZENA	9 EGUAZTENA	10 EGUENA	11 BARIKAKUA
Egunez Garitaonandia	Egunez Arriola	Egunez Arriola	Egunez * Fernandez	Egunez Yudego	Egunez * Orvesagasti	Egunez Yudego	Egunez * Ibañez
Iluntzean Garitaonandia	Iluntzean Arriola	Iluntzean Arriola	Iluntzean Garitaonandia	Iluntzean Yudego	Iluntzean Arriola	Iluntzean Yudego	Iluntzean Arriola

* Fernandez:
Herriko Enparantza, 4
Garagartza (Mendaro)
943 756 142

* Ibañez:
Rekalde, 1 (Soraluze)
943 751 638

* Orvesagasti:
Kalebarren, 9 (Soraluze)
943 751 384

Urte guztian, gauzez: 22:00-09:00
Barandela - Ziriako Agirre kalea, 4 (Eibar)
943 206 984

Uztailean eta abuztuan hildakoak

- . **Begoña Ansola Egia.** 92 urte, uztailek 1
- . **Francisco Salegi Urain.** 80 urte, uztailek 3
- . **Maria Teresa Iriondo Unzilla.** 92 urte, uztailek 5
- . **Elena Intxausti Muguruza.** 96 urte, uztailek 8
- . **Luis Maria Fuente Martinez.** 81 urte, uztailek 18
- . **Luis Mari Isasmendi Alkorta.** 85 urte, uztailek 29
- . **Maria Zelaia Etxaniz.** 95 urte, abuztuak 1
- . **Antonio Crespo Martos.** 75 urte, abuztuak 3
- . **Jesus Santander Alvarez.** 74 urte, abuztuak 5
- . **Eduardo Hernaez Lopez.** 53 urte, abuztuak 8
- . **Lucia Zabala Etxano.** 94 urte, abuztuak 9
- . **Juan Iparragirre Alzibar.** 91 urte, abuztuak 11
- . **Ana Arguello Moreno.** 86 urte, abuztuak 21

Iosu
JuaristiIñigo
Otaño

Umea nintzenean amaiezinak egiten zitzaizkidan udak, orain ordea, gero eta laburragoak egiten zaizkit. Konturatu orduko, beroarekin urtzen den izozkia bezalaxe desgertzen dira abuztuko azken egunak eta egutegiko zenbakiak amildegi ilun batera gero eta bizkorrago erortzen doazela dirudi.

Aurten irailean datorkigun amildegia inoiz baino handiagoa eta ilunagoa izango dela ematen du, pasatako mamuak berriz ere bueltan datoz eta ez dakigu nolakoa izango den ondorengo asteetan biziko garen herria. Argazki hau urrunetik begiratzen badugu, betiko Elgoibar dela esango genuke, baina detaileetan barneratuko bagina, zurronez desberdintasun asko aurkituko genituzke, behartutako ohi-tura aldaketan ondorioz antzeman daitezkeenak.

Izan ere, egoera berri honek ezarri dizkigun hesi sozialek erabat aldatu digute erlazionatzeko modua, ez bakarrik esparru fisikoan, baita emozionalean ere. Ez dakigu luzera begira zertan eragingo dion honek berez gero eta individualistagoa den gizarte honi.

Duela gutxi irakurri dut biziraupena jokoan dagoenean, gure

burmuinaren alderik primitiboena aktibatzen dela. Espiritu kritikoa galtzeko arriskua daukagu gure buruak entzun nahi duena ase nahirik, manipulazioentzako sarbide ezin hobea. Agintedunengandik jasotzen ditugun datu nahasi eta irizpide aldakorren saltsa gozoan, arauen autoritarismoaz gozatzen dutenak asko dira, baita konspirazio eta antzeko ideiekin elikatzen bizi direnak ere.

Garai ilunak datozela diote, baliteke, baina egunen batean konponduko da. Bitartean, ahalik eta ondoen irauteko ahaleginak egitea tokatzen zaigu, zentzu eta koherentzia pixka bat gehiago ez letozke gaizki.



'Garai ilunak datozela diote, baliteke, baina egunen batean konponduko da'

► Gremioen gida

ARROZTEGIAK

BICNA S.L.
ARROZTEGIA

Ermuarenbide, 12-14-16
tel/fax. 943 743 116
www.bicna.eus
info@bicna.eus



Ulazia
ARROZTEGIA ETA ENBALAJEAK
Albitxuri industrigunea, 1-O/ 1-P
943 740 547



iraolagoitia
aroztegia · altzariak · etxe-aldaketak

Kurutz-gain industrigunea, 9
20850 Mendara
Tel.: 943 756 112 / 636 497 485
www.iraolagoitia.com

IMAR
ARROZTEGIA

Olaso industrigunea, 17 beheka
943 531 471
609 054 978
carpinteriaimar@hotmail.com



Aroztegia Carpintería
ASIMA

Ermuarenbide, 18 - Elgoibar

687 150 226
650 026 631
636 886 322
943 744 225
asimaaroztegia@gmail.com

ITURGINTZA

PAGOAGA S.A.

BULEGOA ETA ERAKUSKETA
Pedro Migel Urzuzuno, 8
Tel.: 943 740 512 / Faxa: 943 743 565
tienda@pagoagasa.com
www.pagoagasa.com

BILTEGIA
San Antolín, 13 - Tel.: 943 740 279
tienda@pagoagasa.com

ELGOIBAR

FONTANERÍA
Ibámar
ITURGINTZA

San Roke, 10-A, beheka B
Elgoibar
Floren Oid: 647 463 436
ibamar@euskalnet.net

ONGI Iturgintza

Pedro Muguruza Etorbidea, 11
ELGOIBAR
Tel.: 943 254 522
Faxa: 943 254 523
ongi@ongielgoibar.com
www.ongielgoibar.com

SANTANA

Igor Santana

ITURGINTZA ETA INSTALAZIOAK S.L.

Urazandi kalea 17, beheka
Elgoibar
943 740 530 / 605 714 905
santanaiturgintza@gmail.com

ERREFORMAK

ESTUDIOS ARRILLAGA

Erosario katea, 15 beheka - Elgoibar

- Proiektuak eta erreformak
- Sukaldeak
- Gremioen koordinazioa
- Obren zerbitzu integrala

943 744 019
605 713 168

IGELTSERITZA

A. Garate

Era guztietako igeltseritza lanak egiten aditua

angelmgarate@gmail.com
Santa Ana kalea, 28 beheka - 2. zkoa
Elgoibar

610 226 651

PINTURA

BIOK
dekorazioa

Uparitzaga, 14 - Elgoibar

943 741 552
606 431 120
biok@biokdekorazioa.com

► Igeltseritza
► Pintura

ELEKTRIZITATEA

egoluz
ELEKTRIZITATEA S.L.

Raimon: 677 512 462
Ego-Gain, 9 AC
20600 EIBAR

Andres: 630 957 345
Pedro Migel Urzuzuno, 14 beheka
20670 ELGOIBAR

Bulegoa: 943 200 697
ego.luz@hotmail.com

LEIHOAK

LODOSO LEIHOAK

SIGMA INDUSTRIAGUNEA, 223
lodosofj@gmail.com
Tel.: 943 74 34 90

► Leihoak
► Iturgintza
► Elektrizitatea

GERTU

Gestora de Cooperativas

Iriondo eraikina

Pedro Muguruza, 2, ELGOIBAR



Eraikitzen:

AB ANTON BILBAO
GRUPO



- **Elgoibarko erdigunean.**
- **10 etxebizitza, 3 logelakoak. Logela guztiek kanpora ematen dute.**
- **Obra hasiera: 2020. urtearen amaiera.**

Informazio Gehiago

☎ 943 458 731 - ✉ info@gertugestora.com - www.gertugestora.com